

Gizakundea

Sin.: Gizonegitea; Haragipena (Jesukristorena); Inkarnazioa

Orokorki harturik *haragiztapen-mota da, hau da, jainkoren, izpirituren edo arimaren batek giza gorputza eta itxura hartzea.

Zehazkiago, kristautasuneko kontzeptua da, horren irakatsietako eta fedeko *dogma eta *misteriorik behinena adierazten duena. Horren arabera, Jainkoaren Semea edo *Hirutasuneko bigarren pertsona benetako gizon bihurtu da Jesukristogan, berau benetako Jainkoa eta benetako gizona bait da batean; beste erataria esanda, Hirutasunaren bigarren pertsonak giza izatea, gorputz-arima benetakoak dituen eta Ama Birjinagandik halako unean sortua, berea egin du.

Jesukristo berpiztuari buruzko fedea bi *teologia hauen bateratzearen eran agertzen da Itun Berrian: batetik, gorantzako teologiaren bidez, Jesus Jainkoaren morroia da, zintzoa eta zerbitzaria, eta Mesia aintzaz betea; bestetik, beherantzako teologiaren bidez, Jainkoagan betidanik dagoen Logos edo Hitza da Jesukristo. "Jainkoaren Semea" tituluak bi teologiak bateratzen ditu segurue-nik.

IV. eta V. mendeetan Kristoren izateari buruzko fedearen formulazio teologikoaren inguruan eztabaida luzeak gertatu ziren, Efesoko (431) eta bereziki Kaltzedoniako (451) Kontzilioetan, *dogma gisa definituta gelditu zen arte. Definizio horren arabera Kristo erabat Jainkoa eta erabat gizona da, zerizanean; jainkotasuna edo Jainko izatea eta gizatasuna edo gizon izatea batu egin dira, norizan edo pertsona bakarra eratuz, gizatasuna nahiz jainkotasuna inola ere suntsitu edo gutxitu gabe. Hipostatikoa (hypos-tasis = nortasuna) deritza batasun horri; ez da, ordea, batasun "pertsonal" hutsa, gaur hitz hori ulertzen dugun arabera.

Egiazko Jainkoa da Jesukristo, horrela bakarrik izan bait daiteke gizonen benetako salbatzaile Jainkoaren aurrean: hau da, Jainkoaren eta gizakien arteko *adiskidetasuna eta batasuna lortzeko gauza. Jesukristo ez da, beraz, Jainkoaren Erreinuaren mezularia bakarrik: Erreinu hori benetan gauzatu eta burutu egin da Kristogan beragan, kristau-federen arabera.

Benetako gizona --halako gizon jakina-- da Jesukristo, gorputz, arimako ahalmen, grina, sentipen, min eta guzti; bakarrik, bekatuak ez duela izan, haren giza nahimenak erabat jainko-nahimenarekin bat egiten zuelako. Batasun hipostatikoak ez du Jesus gizona Jesus Jainkoaren itxura huts edo txontxongilo bihurtzen; gizatasunaren eta

giza borondatearen *libertatea erabat oinarriturik eta indarturik gertatzen bait da Jainkoaren borondatearekin bat egitean.

Gizakundearen *misterioa *kristautasunaren funtsezko egien sintesia da; Jainkoaren munduarekiko irekitasuna eta isuria, *kreatzioan bertan gauzatzen hasten dena, burutzen da Jainkoak gizonarekin bat egitean; gizonaren salbamenazko irakatsia, hau da, gizakia Jainkoarekin elkartzea (eta bat egitea), burutzen da; Jainkoaganako eta gizon-emakumeenganako *maitasunaren batasuna egikaritzen da.

Ik. Hirutasuna; Jesukristo.

Paulo Agirrebaltzategi

Gizarte burutua

S. Erroberto Belarminok (1542-1621) erabilitako esakunea, Elizaren izaera definitzeko; ondoren eragin handia eduki zuen mendetan zehar *eklesiologia horrek. Definizio horren arabera, gizon-emakume bataiatuen elkartea da Eliza, bere helburuak betetzeko beharrezkoak dituen helpide eta egitura guztiak beregan dituen. Gaur egun teologoek oso pobre eta partzialtzat jotzen dute Elizaren ikuskera hori, horren misteriozko muina alde batera uzten duekako. Gizarte zibilaren araberrako definizio horretaz baliatu da hainbat mendetan Eliza, estatuetik bere harremanak eratzeko.

Ik. Eliza; Misterioa.

Gizatarra

Ik. Mundutarra, 1.

Gizon-emakumeen adiskideak

Genève-n Alexandre Freytag-ek (1820-1847) sorturiko filantropi mugimendua. Apokalipsian aipatua dagoen 144.000 hautatuen taldea bildu nahi zuen laster eratu omen zen paradisu lurtarrean biziko zena.

Bernard Gayerce, irakasle euskaldunak zabaldu zuen mugimendua Frantses Estatuan. Horren idazkari eta ondorengoak Lydie Sartre-k, benetan paradisu hori eratzeko proiektua egin zuen, horretarako Lot-et-Garonneko eskualdea aukeratu. Lurreko paradisu eratu nahi dute Adiskideek, bereziki nekazarien arteko altruismoa eta filantropia bultzatuz.

Ik. Lurreko paradisu; Milenarismoa.

Gizon-harria

Ik. Hilarria.